

Testua irakurri. hautatu aditz hauetatik hutsune bakoitzerako egokiena eta bere lekura eraman. Berdinak direnean, ordena errespetatu.

ditugu dugu da gara daukagu gaudenean banatu

ditugu dizkigute digute da genion dugu gara

Kaka zaharra! Zergatik egunik politena azkenekoa?
Zergatik ematen kroketak egun horretan?
Zergatik egiten plan eta jokorik «guay» enak
beti bezperan? Justu hain ongi , bukatu
egin behar udalekuak!

Egun osoa pasatu gure lagun ezkutuari
oparia egiten. Ezin omen ezer erosi. Eskulana
izan behar duela, «balio sentimentala» eta horrelako
txorakeriak izateko. Erosten utzita ere, alferrik. Dena
gaur gaueko merendola sekreturako goxokiak erosten
xahutu -eta!

Gauean opariak eta dantzaldira! Edo
udalekuetako argotean esanda, «dultze meneo» ra!
Hauxe da udalekuetan begirik kendu ez diozunari
dantza eskatzeko garaia. Eta betikoa, espabilatueneke
dantzatuko dute beste guztien gustukoekin. Besteok,
kalejiran eskutik heltzearekin konformatu behar!

Inoiz baino beranduago utzi oheratzen begiraleek.
Haiek ere ez zeukaten festa makala beheko gelan! Baina
gaur ez dugu kasik lorik egin. Gelan borobilean eseri, eta
linternen argitan kontu-kontari aritu . Ahalik eta
gehien esna irautea gaurko gure erronka. Alferrik.
Hurrengo egunean begiak zabaldutakoan, konturatuko
 bezperan norbait ibili zaigula bibotea margotzen.

Eta ez mendekua hartzeko beste gaurik!